



CENTRO INTEGRADO ESCUELA  
DE EDUCADORAS Y EDUCADORES

HEZITZAILE ESKOLA  
IKASTETXE INTEGRATUA

Gure etorkizuneko profesionalak pertsonekin eta beren taldeekin esku hartzen dute beren inguruneetan, kalitatezko hezkuntza eta lanbide harreman baten bidez, pertsonen gaitasunak eta beharrak errespetatzean oinarrituta. Horretarako jakintzaren hiru alderdiren beharra planteatzen dugu: **Jakin, Egiten Jakin** eta **Izaten Jakin**.

Gure ustez, funtsezkoa da lanbide-munduarekiko lotura hasieratik izatea. Hori dela eta, praktikak ziklo guztietan egiten dira lehenengo mailatik, bai erakunde publikoetan, bai pribatuetan.

**Metodologia aktiboak** erabiltzen ditugu eta ikasleei jarraipen pertsonalizatua egiten diegu.

GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOA

# Gizarte Integratioko

GOI MAILAKO TEKNIKARIA

MODALITATE PRESENTZIALA **GAZTELERAZ** ETA **EUSKARAZ**

MODALITATE SEMIPRESENTZIALA **GAZTELERAZ**



[www.escuelaeducadores.educacion.navarra.es](http://www.escuelaeducadores.educacion.navarra.es)

Palacio Ezpeleta - Calle Mayor, 65  
31001 - PAMPLONA  
848 43 09 70



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra  
Hezkuntza Departamentua  
Departamento de Educación

TodoFP.es



## GAITASUN OROKORRA

Titulu honen konpetentzia orokorra gizarteratzeko esku-hartzeak programatzea, antolatzea, ezartzea eta ebaluatzea da, horretarako estrategia eta teknika espezifikoak aplikatuta, aukera-berdintasuna sustatuta, eta, uneoro, hartzaileekiko errespetuz jokatuta eta haien zainketa profesionalarentzat ingurune seguruak sortzen direla bermatuta.



## GIZARTE INTEGRAZIOKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA “OINARRIZKO HEZITZAILEA” esku-hartze soziohezitzaile arloko profesionala da:

- Pertsonen beren garapen pertsonalean eta sozialean laguntzen eta akonpainatzen lan egiten du, bereziki gizarte-bazterketako egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen, dela arrazoi sozialengatik, dela arrazoi pertsonalengatik.
- Pertsonen beren gizarte-inguruneetan edota bizitegi/egoitza-inguruneetan laguntzen die, sozializaioa eta gizarteratzea sustatuz, pertsonen autonomia, beharrak, balioak eta bizi-proiektuak errespetatuz.
- Gizarte-bazterketaren arrazoiei buruzko azterketa kritiko batetik abiatzen da, gero eta inklusiboagoa den gizarte-ereduetarantz eraldaketa-prozesuak bultzatzea helburu duena.
- Profesional honen esku-hartzearen ezaugarria pertsonekin harreman zuzena izatea da, eguneroko bizitzako alderdiak partekatuz eta haiekiko lotura sortuz.

## LANBIDE JARDUERAK

Gizarte-integrazioko Goi Mailako teknikariaren- Oinarrizko hezitzailearen lanbide-irteerak zerikusia dute babesgabetasun-egoeran dauden adingabeei, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen, dibertsitate funtzionala/ezgaitasuna duten pertsonen, etxerik gabeko pertsonen, droga-mendekotasunei, indarkeria matxistari eta abarri laguntzearekin, gizarte-bazterketako egoeran edo egoera horretan egoteko arriskuan egon baidaitezke eta. Era berean, herritar guztiei zuzendutako prebentzio-programak garatzen ere parte hartzen du.

### LANBIDE ETA LANPOSTU GARRANTZITSUENAK HAUEK DIRA:

- Tutoretzako laguntzailea
- Dinamizatzaile okupazionala edo lanekoa
- Oinarrizko hezitzailea
- Hezkuntza bereziko hezitzailea
- Familia-hezkuntzako hezitzailea
- Ezgaitasuna duten pertsonen hezitzailea
- Askotariko egoitza-ekipamenduetako hezitzailea
- Enplegu lagunduko teknikaria.
- Komunitate bitartekaria
- Kultura arteko bitartekaria
- Bitartekari okupazionala edo lanekoa
- Auzo eta komunitate bitartekaria
- Zentro irekien begiralea
- Ezgaitasuna duten pertsonen hezitzailea
- Errehabilitazio psiko-sozialeko begiralea
- Laneko prestatzailea
- Hezitzaile teknikaria
- Laneko laguntzako teknikaria
- Enplegu lagunduko teknikaria
- Laneratzeko teknikaria
- Oinarrizko mugikortasuneko teknikaria
- Prebentzioko eta gizarteratzeko programetako teknikaria
- Familia-langilea



# LANBIDE MODULUAK

## LANBIDE MODULUAK

1 MAILA

## ORDUAK

Astean | Guztira

|  |   |     |
|--|---|-----|
| ESKU-HARTZE SOZIALAREN TESTUINGURUA                  | 5 | 160 |
| TREBETASU  | 4 | 130 |
| GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA                         | 4 | 130 |
| AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEA                       | 5 | 160 |
| KOMUNIKAZIOKO SISTEMA HANDIGARRIAK ETA ALTERNATIBOAK | 3 | 100 |
| ESKU-HARTZE SOZIALERAKO METODOLOGIA                  | 4 | 130 |
| INGELESA I   | 2 | 60  |
| LANERAKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA               | 3 | 100 |

## LANBIDE MODULUAK

2 MAILA

## ORDUAK

Astean | Guztira

|  |    |     |
|--|----|-----|
| BIZIKIDETZA UNITATEENDAKO ARRETA           | 4  | 130 |
| HEZKUNTZA ARLOKO ESKU-HARTZEA SOSTENGATZEA | 3  | 100 |
| KOMUNITATE BITARTEKARITZA                  | 3  | 100 |
| LEHEN SOROSPENAK                           | 2  | 70  |
| GIZARTERATZE PROIEKTUA                     | 4  | 130 |
| ENPRESA ETA EKIMEN SORTZAILEA              | 2  | 70  |
| LANTOKIETAKO PRESTAKUNTZA                  | 12 | 430 |



Lanbide-Inguruneetako Prestakuntza lehen ikasturtetik



Metodologia Aktiboetan oinarritutako Ikaskuntzak



Prestakuntza-laguntza Pertsonalizatua